# Hiru eta lau zifrako zenbakiak deskonposatzea

**1** Margotu kolore berarekin zenbaki bera duten kartelak.

10 H · 30 H · 40 H

100 B · 400 B · 3 E

4 E · 300 B · 1 E

20 E · 50 E · 70 E

5 M · 7.000 B · 2 M

2.000 B · 5.000 B · 7 M

**2** Zenbatu eta osatu zenbaki bakoitzaren deskonposizioa.



| E | H | B |
| --- | --- | --- |
| | | |

435 = _____ E + _____ H + _____ B

435 = 400 + _____ + _____



| E | H | B |
| --- | --- | --- |
| | | |

☐ = _____ E + _____ H

☐ = _____ + _____



| M | E | H | B |
| --- | --- | --- | --- |
| | | | |

☐ = _____ M + _____ E + _____ H

☐ = ______ + ______ + ______



| M | E | H | B |
| --- | --- | --- | --- |
| | | | |

☐ = _____ M + _____ E + _____ B

☐ = ______ + ______ + ______

**3** Lotu zenbaki bakoitza bere deskonposizioarekin.

3 E + 2 H + 9 B

2 M + 5 E + 1 H + 8 B

7 E + 4 H + 1 B

2.518 · 741 · 917 · 329 · 5.953 · 9.086

9 E + 1 H + 7 B

5 M + 9 E + 5 H + 3 B

9 M + 8 H + 6 B

**4** **Kasu bakoitzean, pentsatu eta idatzi hiru zenbaki.**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ehunekoen zifra 7 da, eta batekoen zifra 5 da. | Ehunekoen zifra 9 da, eta hamarrekoen zifra 3 da. | Milakoen zifra 9 da, eta batekoen zifra 5 da. | Milakoen zifra 7 da, eta hamarrekoen zifra 8 da. |

**5** **Idatzi zenbaki bakoitzaren 5 zifraren balioa batekotan.**

**ADIBIDEA**
8.562
→ 5 E = 500 B

- 956 → ______________
- 534 → ______________
- 5.387 → ______________
- 6.598 → ______________

**6** **Kasu bakoitzean, idatzi bi zenbaki, globoetako zifrak erabiliz.**




Ehuneko bat dute. ▶ ☐ ☐

4 hamarreko dituzte. ▶ ☐ ☐

5 bateko dituzte. ▶ ☐ ☐




8 milako eta 7 hamarreko dituzte. ▶ ☐ ☐

7 milako eta 6 ehuneko dituzte. ▶ ☐ ☐

**7** **Zer zenbaki da? Irakurri eta idatzi.**

- Milakoen eta batekoen zifrek balio bera dute.
- Ehunekoen eta hamarrekoen zifren batura 5 da.

7.297 9.079 3.508

4.146 5.325

Hau da zenbakia ▶ ☐

# Hiru eta lau zifrako zenbakiak irakurtzea eta idaztea

**1** Margotu kolore berarekin zenbaki bera adierazten duten kartelak.

629

2.680

926

9.026

Bederatzi mila eta hogeita sei

Bederatziehun eta hogeita sei

Bi mila seiehun eta laurogei

Seiehun eta hogeita bederatzi

**2** Idatzi nola irakurtzen den banderatxo bakoitzeko zenbakia.




▸ ______________________________

▸ ______________________________

▸ ______________________________

▸ ______________________________

▸ ______________________________

▸ ______________________________

**3** Irakurri eta idatzi auto bakoitzaren matrikula-zenbakia.

- Auto gorriaren matrikula-zenbakia bi mila zortziehun eta hemeretzi da.
- Auto urdinaren matrikula-zenbakia lau mila bederatziehun eta hamar da.
- Auto berdearen matrikula-zenbakia zazpi mila laurehun eta hamazortzi da.
- Auto horiaren matrikula-zenbakia bederatzi mila eta laurogeita hamar da.
- Auto laranjaren matrikula-zenbakia bederatzi mila zazpiehun eta bost da.



# Zenbaki ordinalak

**1** **Idatzi zenbaki ordinalak txarteletan eta erantzun.**




- Zer koloretakoa da hamalaugarren doan barraskiloa? ______________________
- Zer koloretakoa da hemeretzigarren doan barraskiloa? ______________________
- Zer lekutan dago barraskilo horiaren atzean dagoen barraskiloa? ______________

**2** **ARRAZOIKETA. Irakurri eta idatzi bakoitzaren izena eta ilaran duten ordena.**

Haizea, Amets, Eider eta Gorka zinemarako sarrerak erostera doaz.

- Amets ilarako lehena da, eta Gorka ez da azkena.
- Haizea Eiderren atzean dago.




 ▶ __________  ▶ __________  ▶ __________  ▶ __________

## Zenbait herritako biztanleria aztertzea

**1** Ebatzi.

Taulan, bost herritako biztanle kopurua azaltzen da.

| Herria | Biztanleria |
|---|---|
| Altzai | 2.780 |
| Etxarri | 7.600 |
| Iruri | 5.720 |
| Pagola | 6.230 |
| Urrustoi | 9.500 |



- Idatzi zifraz eta letraz herri bakoitzeko biztanle kopurua.

Altzai ▶ ☐ ▶ ____________________

Etxarri ▶ ☐ ▶ ____________________

Iruri ▶ ☐ ▶ ____________________

Pagola ▶ ☐ ▶ ____________________

Urrustoi ▶ ☐ ▶ ____________________

- Ordenatu txikienetik handienera bost herrietako biztanle kopuruak.

☐ ○ ☐ ○ ☐ ○ ☐ ○ ☐

Zein herrik du biztanle gehien? ____________________

Zer herrik dituzte 7.000 biztanle baino gehiago? ____________________

Zer herrik dituzte 6.000 biztanle baino gutxiago? ____________________

- Irakurri eta erantzun.

Ander Irurik baino biztanle gehien eta Etxarrik baino biztanle gutxien dituen herrian bizi da. Zer herritan bizi da Ander? ____________________

**1** Jarri zenbakiak eta egin batuketak eta kenketak.

| | | | |
|---|---|---|---|
| N 25 + 42 | F 39 + 16 | T 47 + 24 | E 51 + 39 |
| E 68 – 24 | E 72 – 36 | A 80 – 17 | L 94 – 56 |

- Ordenatu eragiketen emaitzak txikienetik handienera, eta idatzi behean bakoitzari dagokion letra.




| 36 | ○ | | ○ | | ○ | | ○ | | ○ | | ○ | | ○ | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | | | | | | | | | | | | | | |

- Aurreko jarduerako zenbaki batzuek zifra bera dute hamarrekoetan eta batekoetan. Idatzi nola irakurtzen diren zenbaki horiek.

[ ] ▸ ______________________________

[ ] ▸ ______________________________